

**HEZKUNTZA SAILBURUAREN AGINDUA, ZEINAREN BITARTEZ AURRETIAZKO KONTSULTA EZARTZEN BAITA IKASKUNTZARAKO BERRIKUNTZA ZENTROA SORTZEARI ETA HAREN LANPOSTUEN ZERRENDIA ONARTZEARI BURUZ**

2022ko uztailaren 15ean EHAAAn argitaratu zen 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena. Bertan, testu artikulatu oso bakar batean sartzen eta integratzen dira xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea ordezkatzeko du.

Zehazki 11 artikuluan Aldez aurretiko kontsulta herritarrei hau zehazten da:

“1.– Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkartza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarleen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioari langile zein herritarra izan.

2.– Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaila izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.

3.– Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.

4.– Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo aragintza-prozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.”

Hezkuntza Sailak Hezkuntza Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa sortzeko eta haren lanpostuen zerrenda onartzeko dekretu-proiektua egiten hasteko asmoa du.

Aipatutako 2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenarekin bat etorriz, eta herritarrek arauak egiteko prozeduran parte har



dezaten bultzatze aldera, arau-proiektua egin aurretik, jendaurreko kontsultarako aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web atariaren bidez, herritarren eta etorkizuneko arauaren eragina jasan dezaketen erakunde adierazgarrien iritzia jaso ahal izateko, honako gai hauei buruz:

## **1.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoei buruz:**

Otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, eta otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoak, berezko arau-esparru bat osatzen dute, zeinak aukera ematen baitu hezkuntzari laguntzeko zerbitzuak dituen euskal eskola publiko bat eratzeke, ikastetxeekin lankidetzan aritzeko eta hezkuntza-prozesuak hobetzeko. Horri dagokionez, 1/1993 Legeak 26. artikuluan hitzez hitz dioenaren arabera, «Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez arautuko ditu hezkuntza sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak».

Otsailaren 6ko 15/2001 DEKRETUAREN bidez, prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zentroak (Berritzeguneak) sortu ziren, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa. Dekretu horrek indargabetu egin zuen ekainaren 14ko 154/1988 Dekretua, Orientazio Pedagogikoko Zentroak sortzekoa.

Ondoren, otsailaren 17ko 40/2009 DEKRETUAREN bidez, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautu ziren, eta Berritzegune Nagusia sortu zen, Hezkuntza Sailburuordetzako Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak zehaztutako curriculum-arloen eta lehentasunezko jarduera-eremuen lidergoa bere gain har zezan. Ondorioz, Berritzegune Nagusia Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroen sarean sartu zen, eta haren eragin-eremu geografikoa Euskal Autonomia Erkidego osoa zen.

Ordutik hona, azken bi hamarkadetan gertatu diren aldaketa sozial eta ekonomikoek premia eta sentsibilitate berriak sortu dituzte, eta horiek erantzun egokia behar dute, baita hezkuntzaren esparruan ere. Horrek justifikatu egiten du euskal hezkuntza-sistemako ikastetxeei eskaintzen ari zaien laguntzari buruz hausnartzeko eta hura aztertzeke beharra, irakaskuntzaren kalitatea, aukera-berdintasuna eta hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna hobetuko dituen eskola bat lortzeko, betiere lehentasunezko helburu gisa edukita EAEko ikasle guztien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea.

Arestian azaldutakoarekin bat etorritik, beharrezkotzat jotzen da, halaber, inklusioa, aholkularitza, prestakuntza eta berrikuntza sustatzeko zerbitzuen gobernantza-esparrua eguneratzea, definizioari, egiturari eta antolaketari dagokienez, aipatutako helburuei erantzun diezaieten eta ikasle guztientzako eskola inklusibo eta kalitatezkoa garatzen dela ziurta dezaten.

Horregatik guztiagatik, gaur egun dauden laguntza-zerbitzuak ere hezkuntza-erronka berrietara egokitu behar dira, ekitatea eta hezkuntza-aniztasuna eta -inklusioa zaindus.

## **2.- Aurreikusitako erregulazioa eta horri buruz indarrean dagoen araudia izateko beharra.**

Orain arte, hezkuntza-sistemari laguntzeko oinarrizko egiturak arautzeko hainbat arau izan ditugu:

- 15/2001 DEKRETUA, otsailaren 6koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) sortzen dituen, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa.
- 40/2009 DEKRETUA, otsailaren 17koa, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzekoa.
- 41/2009 Dekretua, otsailaren 17koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- 42/2009 DEKRETUA, otsailaren 17koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostuen zerrendako aldaketek zer langileri eragingo dien zehazteko irizpideak ezartzen dituen, eta zentro horietan berriz atxikitze prozesua arautzen duena.

Berritzeguneak, Berrikuntza Zerbitzu gisa, gizartean gertatu diren aldaketetara egokitu joan dira. Hori dela eta, azken urteotan aldaketak egin dira haien egiturari, antolamenduari eta funtzionamenduari. Erronka berriekin bat etorriko den erantzun egoki bat emate aldera, Berritzegune Nagusia indartu da, 2022/2023 eta 2023/2024 ikasturteetan lanpostu berriak betetzeko deialdia eginez. Lanpostu horiek Hezkuntza Sailak ezarritako ildo estrategikoei eta lehentasunezkoiei erantzuten diete, hala nola honako esparru hauekin lotutako esparruei: lidergo pedagogikoa, hezkuntza-zuzendaritza eta kudeaketa aurreratua, irakaskuntza-gaitasunak, curriculum-garapena eta ikaskuntza-metodologia eta -inguruneak, bizikidetzak eta aniztasunaren kudeaketa, nazioartekotzea, euskara, eleaniztasuna eta kulturartekotasuna, digitalizazioa eta berrikuntza teknopedagogikoa.

Bestalde, egungo Ingurugelak Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Hezkuntza eta Ikerketa Didaktikoko Zentro gisa sortu ziren, irailaren 19ko 202/1989 Dekretuaren bidez. Aipatutako 202/1989 Dekretuan jasotzen denez, IIHII zentroak ingurumen arloko Sail eskudunaren mende daude organikoki, baina programazioa eta jarduketak-ildoak hezkuntzaren arloan eskuduna den Sailarekin batera aztertu eta zehaztuko ditu.

Ingurumen arloko jarduketak-ildoak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren 1998ko ekainaren 22ko AGINDUAREN bidez arautu ziren, eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ingurumen arloko hezkuntza-programa onartu zen, 1996ko ekainaren 26ko Aginduaren bidez unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ingurumen arloko hezkuntzaren garapena arautu ondoren.

28/2001 DEKRETUA, otsailaren 13koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak hala proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegietako (IIHII) lanpostuen zerrenda onartzen duena.

Azkenik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuen 2005eko martxoaren 16ko Aginduaren bidez, "Ingurugela" izendapena onetsi zen Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegientzat (IIHII).

Jarduketa-ildo horretan, 2015ean, Nazio Batuek Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onetsi zuten. Bertan, plan bat ezartzen zen, 15 urtetan pertsonentzat eta planetarentzat ezarritako 17 helburu (GJH) lortzeko, besteak beste, pobrezia amaitzeko, planeta babesteko eta mundu osoko pertsonen bizitzak eta itxaropenak hobetzeko. Garapen Jasangarrirako Helburuen artean, laugarren helburuak Kalitateko Hezkuntza bultzatzeko xede batzuk jasotzen ditu. Horien artean dago, esaterako, ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskura ditzaten berrmatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarriak izateko hezkuntzaren bidez. Hori dela eta, Ikaskuntza Berrikuntzarako Zentroaren lehentasunezko ildoan egongo da, bai jasangarritasun arloko, bai ingurumen hezkuntza arloko kultura eta sentsibilitatea indartzea.

### **3.- Arauaren helburuak**

Dekretu berriaren xedea da Euskal Hezkuntza Sistemari laguntzeko oinarritzko egiturak eguneratzea. Egitura horiek Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 26. artikuluan definituta daude, eta ezarrita daude, batetik, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa sortzen dituen otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuan eta, bestetik, Berritzeguneen egitura, antolaketa eta funtzionamendua arautzeko otsailaren 17ko 40/2009 Dekretuan, haien izendapenari eta konfigurazio organiko eta funtzionalari dagokienez, hori guztia irakaskuntzaren kalitatea, aukera-berdintasuna eta hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetuko dituen eskola inklusiboa lortzeko. Aldaketa horiek aurre egin beharreko errealitate berrien aurrean jartzen gaituzte, eta hezkuntza-erronkei erantzuteko egokiak diren agertokiak eta tresnak diseinatzera behartzen gaituzte: ikastetxeen soziologia aldatu duten migrazio-fluxuak; gure ikastetxeetako kulturartekotasuna eta aniztasuna; familien eskakizun berriak; ikasleak eta gaitasunen garapena ardatz izango dituen ikaskuntza, erronka demografikoa eta gero eta teknologikoagoa den inguruneke mehatxuak eta aukerak.

Arauk berriazko helburu hauek ditu:

- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa sortzea eta egituratzea.
- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroaren kudeaketa-sistematika ezartzea.
- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroaren antolamendu-egitura ezartzea.
- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroaren zuzendaritza-figura zehaztea.
- Aholkularitzen eskumen-profila ezartzea.
- Hezkuntza Inklusioa, Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroarekin partekatutako lankidetzeta- eta zerbitzu-ereduaren eredua zehaztea.
- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroko lanpostuen zerrenda onartzea.
- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroko prestakuntza antolatze eta eguneratzeko mekanismoak ezartzea.
- Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroko ekonomia-, aurrekontu- eta langile-gaien kudeaketa ezartzea.

#### **4.- Irtenbide alternatibo posibleak: arautzaileak eta ez-arautzaileak.**

Bi alternatiba posible daude: batetik, ekintzarik ez egitearen aukera, hau da, laguntza zerbitzuen gaur egungo egitura mantentzea Euskal Hezkuntza Sistemaren beharrei erantzuteko edo, bestetik, ikastetxeei laguntzeko egitura berri bat onartzearen aukera, irakaskuntzaren kalitatea, aukera-berdintasuna eta hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetzeko.

Erabat baztertu da ekintzarik ez egitearen aukera, haren alde eginez gero, guztiz geldiaraziko bailitzateke Euskal Hezkuntza Sistemak ezinbestean egin behar duen hobekuntza globaleko prozesua.

Hezkuntzaren zerbitzu publikoa nahitaez arautu behar da, batez ere hezkuntza funtsezko oinarria delako gizarte garaikideetan, sistema politiko demokratikoetan eta, halaber, herrialde baten garapen ekonomikoari dagokionez.

Beraz, dekretu-proiektu berri bat izapidetzen hastea erabaki da, araudia eguneratzeko proposamen hori baita biderik onena, baldin eta bermatu egin nahi bada Euskal Hezkuntza Sistemak eskola inklusibo eta berritzaile bat lortzea.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko arau horren eragina izan dezaketen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie, bai eta erakunde, entitate edo elkarteei ere.
- Argitaratu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoen iragarki-taulan, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezarriko da eragina izan dezaketen erakundeek,

herritarrek eta haien erakundeek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan egiten dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz. Horrez gain, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera fasearen barruan.

71/2021 Dekretuak, otsailaren 23koak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehena. - Aurretiazko kontsulta publikoko izapidea ezartzea Ikaskuntza Berrikuntzarako Zentroa sortzeko eta haren lanpostuen zerrenda onartzeko.

Bigarrena. - Arauaren eragina jasaten duten herritarrek eta erakundeek, hala baderitzote, Agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko aukera izango dute hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, sinaduran zehazten den datan

**Jokin Bildarratz Sorron**  
**HEZKUNTZA SAILBURUA**